


Memoria marrazten:

Emakumeak, historia eta
borroka anitzak Gipuzkoan



Memoria marrazten:

Emakumeak, historia eta
borroka anitzak Gipuzkoan

Lumaltik Herriak elkarteak eta
Helena González Gonzálezek egindako ikerketa

2026ko otsaila



Edukien aurkibidea

Sarrera	6
Azpeitiko memorian barrena: <i>Matazak</i> proiektu	10
Feminismoak espazioa eraldatzearen ikuspegitik: Mutrikuko institutu publikoko esperientzia	18
Hutsune bat betetzea, espazio bat okupatzea, erreferente bihurtzea: Debako eta Donostiako elkarte feministak eta antirrazistak	26
Genealogia feministak eraikitze oroimen kolektiboa: Aztarnak proiektua Eibarren eta beste udalerrri batzuetan.....	33
Ondorioak.....	38
Esker onak	40

Sarrera

«Defendatzaileak: zaintzarako eta bizitzaren iraunkortasunerako antolamendu-alternatibak» proiektuaren esparruan (Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatutako proiektua), Lumaltik Herriak elkarrekin ikerketa bat sustatzea erabaki zuen. Helburua zen urteetan zehar bizitza eta natura mehatxatu dituzten indarkeria patriarkal, arrazista eta kapitalistei aurre eginez giza eskubideak defendatu dituzten tokiko emakumeen eta emakume migratzaileen memoria historikoa dokumentatu eta zabaltzea. Proiektuak bi helburu izan ditu, eta horiek gidatu dute ikerketa-prozesu osoa.

Alde batetik, Gipuzkoako hainbat kolektibo feministak, antirrazistak eta ekologistak egindako ahalegin, lan eta proiektuetara hurbildu eta horiek ezagutu eta ezagutzera eman nahi izan dira. Horretarako, ikerketa hasi aurretik hainbat lurralde eta kolektibo zehaztu genituen, haiekin harremanetan jarri eta haien prozesuak eta borrokak hurbiletik ezagutzeko. Helburua ez zen ezaguerak partekatzea eta aberastea bakarrik, elkarren artean harremanetan jartzea baizik. Bigarren helburuak lotura zuzena du horrekin. Prozesu hau martxan jarri izanaren arrazoietakoa bat da kolektiboen artean aliantzak sortzen laguntzea; izan ere, gure esperientziatik abiatuta, konturatu gara kolektibo horiek askotan ez dutela elkar ezagutzen edo ez dituztela aliantzak sortzen, fisikoki elkarrengandik oso gertu egon arren eta antzeko lanak egin arren.

Abiapuntu horretatik, **ikerketak ibilbide fisiko baten itxura hartu behar zuela erabaki genuen. Horregatik, ikerketa-proiektua espazioan bertan eta espaziotik gauzatu da.** Emakumeen kolektiboak ezagutzeko, haiekin elkartzeko, aliantzak sortzeko eta proiektu eta ekimen anitzei buruzko ezagutza biltzeko asmoak bultzatu zuen proiektua eta bidaia bera. Bidaia Azpeitian hasi zen, eta Mutrikura, Eibarrera, Donostiara eta Debara ere eramán gintuen.

Elkarrizketetan eta dokumentazio-prozesuan zehar, leku horien arteko loturak jarri dira agerian. Proiektuen artean nahi gabeko loturak sortu ziren eta, modu naturalean, esperientziak elkar lotzen hasi ziren. Topatutako emakume eta kolektibo guztiak memoria egiten ari dira, lurraldean bertan.


Prozesuaren alderdi garrantzitsu bat izan da esperientzia eta proiektu horiek zehaztasunez eta bertatik bertara ezagutu ahal izan ditugula —jarduketa-ardatz eraldatzailea duten militantzia-lan konprometituaren emaitza dira, eta hala izaten jarraitzen dute—, horiek bultzatu dituzten eta protagonista izan diren emakumeen bitartez, eta haien lekukotzak entzunez. Ahoz jasotako kontakizun horietan, datuak, prozesuen esperientziak, oztopoak eta ikasitako ikasgaiak ageri dira, baina baita bizipen pertsonalak ere: oroitzapenak, zalantzak, akatsak, ezinegonak, garaipen kolektiboak eta testu hauetan jasotzen diren erresistentzia-prozesuekin lotutako emozio amaigabeak.

Ikerketa hasiera-hasieratik oztopatu duten denbora eta muga fisikoak kontuan hartuta, eta prozesua zehaztasunez eta apertasunez egin dela jakinik, proiektuaren helburua ez zen esperientzia guztiak xehetasunez deskribatzea.

Asmoa zen, erakunde gisa, tokiko erresistentzia-esperientzietara hurbiltzea, alde batetik, aliantzak sortzeko, eta bestetik, Gipuzkoako lurraldeetan egin diren edo egiten diren proiektuak ezagutu, jaso eta zabaltzeko. Horixe izan da, beraz, ikerketaren oinarria: emakumeen kolektiboak ezagutzea, haiekin hitz egitea eta bidaian zehar bildutakoa partekatzea, hemen emandako informazioa material gisa erabili ahal izan dadin, kolektiboen eta lurraldeen artean sareak eta aliantzak sortzeko.

**Azpeitiaren historia
eraiki eta gaur egungo
Azpeitiari itxura eman
zioten emakumeak
deskribatzeko eta
ezagutzera emateko
premiazko beharra
azpimarratzen du.
Baina, aldi berean,
emakumeen
genealogiak deskribatu
eta ikusgai egiteko
beharra azpimarratzen
du, gu geu historiaren
baitan ezagutu, kokatu
eta legitimatu ahal
izateko.**





Azpeitiko memorian barrena: *Matazak* proiektua

Matazak proiektuaren ideia Azpeitian (Gipuzkoa) sortu zen, Emakumeen Mahaian, Azpeitiko emakumeen memoria historikoa berreskuratzeko proiektu kolektiboa. Mahai horretan egindako ekarpenei esker, udalerriko memoria historikoari buruzko ikerketa egiteko beharra agertu zen, baina, oraingoan, ohiko begirada maskulinoetik urrun. **Non zeuden Azpeitiko emakumeak? Zein leku, une historiko eta kolektibo izan ziren garrantzitsuak?**

Idea indartsu agertu zen Emakumeen Mahaian, baita haren premia ere: Azpeitiko historian parte hartu zuten emakume gehienak adinekoak ziren. Horregatik, haiekin hitz egin eta haien historia bildu eta kontatzea berehalako premia bihurtu zen. Ideia hori abiapuntutzat hartuta, eta beste udalerrri batzuetan —Oñatin, adibidez— egindako antzeko ikerketak kontuan hartuta, *Matazak* proiektua jarri zen martxan.

Prozesuaren helburua zen Azpeitiko emakumeen ekarpen historikoak berreskuratu eta aitortzeko bide bati ekitea. Emakumeen bizipenak bigarren mailan geratu izan dira beti, ikusezin eta gutxietsita. Gizonen ekintza gogoangarriak, berriz, goraipatu eta belaunaldiz belaunaldi transmititu dira. Horregatik, proiektu honek ikuspegi hori irauli nahi izan du, istorioa Azpeitiko emakumeen esperientziatik eta bizitzetatik kontatzeko.

Hasiera-hasieratik argi zegoen proiektuak kolektiboa izan behar zuela, eta udalerrian antolatuta zeuden emakumeen interesei erantzun behar ziela. Horretarako, Emakumeen Txokoan talde eragile bat sortu zen. Emakumeek beren borondatez parte hartu zuten talde horretan, eta ikerketaren arloak zehaztu zituzten, saio dinamikoen bidez.



Prozesuaren xede kolektiboak identifikatzeko prozesuan, bederatzi kolektibo aukeratu ziren: auzo-eskolak, etxeko langileak eta neskameak, emakume baserritarrak, dendariak, telefonistak, dantza eta antzerkia, garbitzaileak eta politikariak. Hautaketa ez zen izan batere erraza, emakumeen talde eta istorio asko elkarrekin lotuta baitzeuden, baina prozesua aurrera eramateko, irisgarriak ziren kolektiboak lehenetsi ziren, hau da, parte hartzeko aukera zuten kolektiboak.

Bederatzi kolektiboetako emakumeak aurkitu eta haiekin hitz egiteko aukera izateaz gain, hautaketan funtsezkoa izan zen beste irizpide bat ere: espazio publikoa. Ezinbestekoa zen espazio publiko zehatz bati lotutako kolektiboak aukeratzea. Izan ere, helburua zen udalerrian zehar ibilbide fisiko bat egitea, emakumeak egon ziren lekuen mapa marrazteko eta gaur egungo espazioak Azpeitiko emakumeen memoria historikoarekin betetzeko.

Prozesua hasieran osatutako talde eragileak bultzatu eta garatu zuen. Ikerketa-talde finkorik ez bazegoen ere, talde eragilearen forma hartzen hasi zen, parte hartzen eta ekimena gidatzen hasi ziren emakumeekin: beste emakume batzuekin harremanetan jarri, elkarriketak egin eta tailer kolektiboak antolatu zituzten esperientzia guztiak bildu eta sistematizatzeko. Prozesua Farapi kooperatibaren dinamizazioarekin egin da. Lan kolektibo horrek bidaia baten forma hartu zuen. Herriko hainbat lekutatik barrena —bakoitza emakumeen kolektibo bati lotuta—, *Matazak* izeneko ibilbide fisiko, bisual eta ahozkoa sortu zen. Azpeitiko iraganera egindako ibilbide sinboliko horren bidez, emakumeek herriari egindako ekarpenak erakutsi eta aitortu nahi izan dira.

Bilketa-lana ez zen dokumentazio hutsa izan: proiektuaren beraren hitzetan, gaur egungo Azpeitia isilpean eraiki zuten emakume asko berreskuratzeko, aitortzeko eta erreparatzeko ariketa ere izan zen. Ibilbidea ekintza kolektiboa bultzatzen duen ahots batek gidatu zuen: elkarrekin eta taldean aurrera egitea, banaka hasi eta kolektibo gisa horren ondoren. Horrela, ezagutzen ez dugun baina iraganean egon den horretara iristeko bideari ekin genion; izan ere, lausotuta eta bigarren planoan geratu den hori lehen lerrora eramanez du kontakizun kolektiboak. Narratiba hori eraikitzeko, mataza edo hari-multzoaren metafora erabili da: hari nahasiek urteetan isilpean egon diren, ikusezin izan diren eta gordeta egon diren istorioak irudikatzen dituzte. Ibilbidea da hari horiek askatzeko tresna, hau da, memoria egiteko tresna.

Ibilbidearen lehen geldialdiak andereñoen historia kontatzen du, herriko andereñoena, alegia. Diktadura garaian ikastola klandestinoak sustatu zituzten, eta ikastoletan euskararen irakaskuntza mantendu eta transmititu zuten. Azpeitiko gizarteak emakume horiekin duen zorra agerian uzten du lehen hari horrek; izan ere, garai hartako zailtasun politiko eta materialei aurre eginez, elkarlanean aritu ziren herriko haurren euskarazko hezkuntza bermatzeko.

Lehen hari horrek hurrengora garamatza, emakume espartingileen historiara, lanbide hori emakume askoren ogibidea izan baitzen XX. mendearen hasieran eta erdialdean. Seme-alabak zaintzen zituzten bitartean, zolak josten zizkieten oihalei, eta kalean lan egiten zuten: leku publikoetan elkartzen ziren, bakoitza bere zereginarekin. Lan egiteko modu hori elkartzeko, etxeko isolamendutik irteteko eta sozializatzeko modu bat ere izan zen. Ibilbidean, beste askoren oinak jantzi zituzten emakume horietatik hurrengo taldera iristen gara: neskameak. Gaur egun bezala, zerbitzuen eta zaintzen lana emakumeen esku egon da historikoki.

Horregatik, gizarte patriarkaletan eta kapitalistetan lan horiexek dira gizarteak gutxien baloratzen dituenak eta lan-baldintza txarrenak dituztenak. Azpeitian, neska gazteenak Donostiako familia aberatsen etxeetara joaten ziren zerbitzari gisa. Esaten den bezala, lan-baldintzak gogorrak eta lanaldiak luzeak eta nekagarriak izan arren, herria utzi eta igande arratsaldeetako askatasunak (lanetik atsedeen hartzeko une bakarra) une alaiak eta independenteak bizitzeko aukera eman zien, elkar bildu eta sareak sortu baitzituzten. Pixkanaka askatzen ari den mataza horrek emakumeen istorioak irudikatzen ditu: lan produktiboaz gain, lan erreproduktiboez ere arduratzen ziren. Audio-grabazioetan argi eta garbi ematen zaizkie eskerrak amei eta amonei, haien zaintzek sostengatu baitzituzten Azpeitiko belaunaldi askoren bizitzak.

Lan horien artean zeuden emakume baserritarrenak ere, eta horiek osatzen dute, hain zuzen, hurrengo geldialdia. Emakume baserritarrek etxe barruko eta kanpoko lanak egiten zituzten: nekazaritza-lanak, otorduak prestatu, ibaira jaitsi eta arropa garbitu, haurrak eta animaliak zaindu, etab. Gainera, merkatura jaitsi behar izaten zuten, ekoiztutakoa saltzera eta eskura ez zituzten gainerako produktuak erostera.

Topagune horiek ez ziren soilik lan horietarako espazioak; emakumeak elkartzeko eta harremanetan jartzeko lekuak ere baziren. Emakumeentzat elkar trukerako lekuak ziren. Topagune publiko horiez gain, emakume baserritarrentzat oso garrantzitsuak ziren hurrei ipuinak eta istorioak kontatzen zizkieten lekuak —beste eginkizun batzuk betetzen zituzten bitartean, noski—. Kontakizun horietan familiako eta herriko istorioak jasotzen ziren, eta belaunaldiz belaunaldi iritsi zaizkigu, ahozko transmisioari esker.

Astearteko azokaz gain, garai hartan Azpeitia dendaz beteta zegoen. Denda horietan, emakume dendariak familia-negozioak kudeatzen zituzten, baina haien lana etengabe gutxien zen.

Aurreiritziak jasaten zituzten, eta behin eta berriz entzun behar izaten zuten denda bat kudeatzeak ez zuela ahalegin handirik eskatzen, eta haien lan bakarra denbora pasatzea eta bezeroekin hitz egitea zela. Tabernak gizonezkoentzako espazioak ziren garai hartan, eta dendak tristurak eta kezkak partekatzeke leku bihurtu ziren. Leku garrantzitsuak izan ziren. «Erdikaletik Arrabaleraino dauden denda guztietan, ezagutzen ez ditugun milaka istorio egongo dira».

Ibilbidean zehar presentzia gehien izan duen beste talde bat telefonistena da. Horiek aritu ziren 1965ean irekitako Gipuzkoako lehen telefono-zentroan, eta lanbide horrek lan-mundura sartzeko aukera eman zien emakume askori. Independentzia eta autonomia ekonomikoa lortzeko bidea izan zen askorentzat. Gainera, lan-baldintzak hobetzeko borroka kolektiboan erreferente izan ziren: alfabetatze-orduak lortzeko eskubidea edo enpresan ekonomatu bat sortzea, besteak beste.

Bidaia aurrera egin ahala, mataza gero eta txikiagoa da, hariak askatzen eta kaleetan barrena zabaltzen diren heinean. Oraindik kontatzeko dauden istorioen artean, emakume artistenak daude; izan ere, sorkuntza kulturala emakumeak ahalduentzeko tresna garrantzitsua izan zen, banaka eta, batez ere, kolektiboki. Antzokietara eta bestelako ikuskizun kulturaletara joan ahal izatea tresna ezin hobeia izan zen herritik irteteko, etxera beranduago itzultzeko, burua zabaltzeko eta, azken finean, independentzia irabazteko. Herrian, emakumeen memoriari lotutako beste espazio fisiko bat garbitokia da. Garbitoki publikoen eraikuntza aurrerapauso handia izan zen lan hori —beti emakumeen esku egon zena— arinago eta beste emakume batzuekin batera egin ahal izateko. Garbitokiak, dendak eta azokak bezala, emakumeen topagune bihurtu ziren, eta bertan partekatzen zituzten euren kezkak. Tabernetara sartzeko aukerarik ez zuten, garbitokiak emakumeen elkargune izan ziren, baina aisialditik urrun, lan erreproduktiboak baldintzatutako espazioak baitziren.

labilbidearekin amaitzeko, borroka politikoarekin eta militantziarekin bidea ireki zuten emakumeak ditugu, hau da, Azpeitiko gaur egungo mugimendu feministaren bidea ireki zuten emakumeak. Ibilbidea amaitu ondoren, mezua argi utzi da: «Egunen batean horrelako mataza bat aurkitzen baduzu zure etxeko atarian, badakizu zer egin. Askatu. Ziurrenik etxe guztietako trastelekuan egongo da antzeko matazaren bat. Hartu eta askatu». Ekintzarako deialdi hori da abiapuntuko esentzia, *Matazak* proposatu eta abian jarri duen ariketa mugatua baita. Ikerketa-prozesua kolektibo eta istorio batzuetara bakarrik iritsi zen; asko bildu baziren ere, oraindik handia da emakumeen baitan eta etxeetan gordeta dagoen aberastasuna. Helburua Azpeitiaren iraganaren ikuspegi konplexu, anitz eta adierazgarria aurkeztea zen, baina ariketa honek gainazala ukitu besterik ez du egiten, eta azpian dagoena azaleratzen du: **berreskuratu, kontatu eta memoria kolektibo bihurtu behar diren ehunka istorio.**

Matazak proiektua oso garrantzitsua da, eta ez bakarrik memoria historikoa ikuspegi feministatik lantzen duelako. Horrez gain, **Azpeitiaren historia eraiki eta gaur egungo Azpeitiari itxura eman zioten emakumeak deskribatzeko eta ezagutzera emateko premiazko beharra azpimarratzen du. Baina, aldi berean, emakumeen genealogiak deskribatu eta ikusgai egiteko beharra azpimarratzen du, gu geu historiaren baitan ezagutu, kokatu eta legitimatu ahal izateko.** *Matazak* proiektuak proposatzen duen bidaia oso garrantzitsua da emakumeek bete zituzten lanbideak aitortzeko, udalerriko ekoizpen-lanaren parte izan zirelako. Baina ez hori bakarrik; erakusten du espartingileek, andereñoek, neskameek, dendariak eta gainerako emakumeek, lan egiten zuten bitartean, bizitza ere zaintzen eta sostengatzen zutela. Bidaia honek emakumeen lan erreproduktiboa aitortzen du, lan hori gutxietsi egin delako eta askotan lan gisa ere hartu ez delako. **Gaur egun, emakumeen memoriak espazio fisikoa du Azpeitian. Etxeetan, dendetan eta trastelekuetan jarraitzen du, baina baita kaleetan, plazan eta ibaiertzean ere.**

**Kontua ez da
aukera-berdintasuna soilik;
oztopoak gainditzea,
boterearekin lotutako
auziak zalantzan jartzea,
egiturazko indarkeriaz hitz
egitea, Mendebaldeko
gizon zuriaren
erreferentzia aldatzea
baizik.**

”



Feminismoak espazioa eraldatzearen ikuspegitik: Mutrikuko institutu publikoko esperientzia

Mutrikuko institutu publikoan, duela hamar urte baino gehiago, irakasle talde batek bide bati ekin zion genero-ikuspegia ikasgeletan, programazio akademikoan eta ikastetxeko egunerokotasunean txertatzeko eta lantzeko. Begiratu batean azalekoa, arrunta eta konplexutasunik gabea zirudien, baina, urteak igaro ahala, feminismoei buruzko irakasgai espezifikoko bat eskaintzen duen Euskadiko institutu publiko bakarra bihurtu da Mutrikukoa.

Ekimena irakasle talde baten proposamenari esker abiarazi zen, eta irakasleek eta ikasleek osaturiko boluntario taldeekin batera, feminismoari eta genero-ikuspegiari buruzko gaiak lantzen hasi ziren. 2014tik 2017ra bitartean, hiru urtez, talde horien lana guztiz bolondresa eta prekarioa izan zen: jolas-orduetan eta arratsaldean egiten zuten, eta prestakuntza denbora librean jasotzen zuten. Urte luzez, denbora beren borondatez eskaini zuten pertsonen dedikazio eta sakri zio gehigarriari esker mantendu ziren aldaketak.

2018an, lan hori sustatu zuten emakumeen taldeak proposamen formal bat aurkeztu zion Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari, batxilergoko lehen mailan hautazko ikasgai bat curriculumean txertatzeko helburuarekin. Ikasgai horrek ordura arte landutako gai guztiak jorratzeko balioko zuen, baina oraingoan eskola-orduetan eta prestakuntza arautuaren barruan. Hezkuntza Sailak proposamena onartu zuen, eta ikasgaia ikasgeletan sartu zen. Ikasgaia planteatzeko moduak bi helburu ditu.

Batetik, **hezkuntzaren ikuspegitik**, feminismoari eta genero-ikuspegiari buruzko hainbat gai lantzea da asmoa, parte hartzen duten ikasleen artean erreferenteak sortu eta oinarrizko ezagutzak finkatzeko. Bestetik, **ikasleak** institutuan bertan **erreferente bihurtzea** da asmoa. Horrek esan nahi du ikasgeletan eta tutoretza-saioetan rol aktiboa hartzea, zenbait mezuren bozeramaile izatea eta ikasle gazteagoei saioak ematea. Horrela, ematen den ezagutza ez da ikasgela jakin batean geratzen; aitzitik, ikastetxeko gainerako eremuetara eta ikasle taldeetara hedatzen da. Gainera, erreferentziatzko loturak sortzen dira belaunaldi desberdinen artean.

Era berean, ikasgaia osatzen duen taldea arduratzen da azaroaren 25ean (Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatze Nazioarteko Eguna), martxoaren 8an (Emakumeen Nazioarteko Eguna) eta maiatzaren 17an (Homofobiaren, Transfobiaren eta Bifobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna) antolatzen diren ekimenez. Egun horietan, ikasleek eta irakasleek jarduera eta protesta publikoak antolatzen dituzte. Jarduera horiek planteamendu artistikotik garatzea da asmoa, hausnarketa emozioen eta artearen bidez sustatuz.

Zentzu horretan, aurreko urteetan egindako jardueren artean, irrintzia landu da, ahalduntzearen ikuspegitik; horretarako, irrintzi-tailer bat egin zen ikasleekin, eta performance modura garatu zen jolastokian. Horrelako jardueretan ezinbestekoa da **espazioa hartzea eta jendaurrean agertzea**. Irakasleen ustez, herriko espazioetan jendaurrean jartzea protesta errotzeko eta parte hartzen dutenen konpromisoa sendotzeko modu bat da.

Ikasleen parte-hartzearen beste esparru bat **azpiegiturak zalantzan jartzea** da, bai ikastetxekoa bai herrikoak. Testuinguru horretan, lehen proiektuetako bat ikasleek egindako ikerketa bat izan zen, herriko kale-izendegiari buruzkoa. Azterketa horren arabera, kaleen izenen % 99 gizonezkoenak ziren, eta askok ez zuten Memoria Historikoaren Legea betetzen.



Egoera hori aldatzeko, eta kale batzuen izenak nahitaez aldatu behar zirenez, taldeak bost emakumeren izenak proposatu zituen, Udalaren jardunaldi feministetan aurkeztu zirenak. Une horretan, kaleak **beste modu batera izendatzea** aldarrikatu zen.

Proiektua abian jarri zuten irakasleentzat oso garrantzitsua zen feminismoa ikasgeletan sartzeari, baina baita institutuko egiturak eta dinamikak feminismoaren ikuspegitik berraztertzea ere. Espazio publikoan esku hartzeari dagokionez, azken urteotan egindako bi proiektuk argi erakusten dute konpromiso hori: jolastokiaren eraldaketa eta komun partekatuen eraikuntza.

Lehen kasuan, ikastetxe eta institutu askotan bezala, konturatu ziren jolastoki osoa futbol-zelai bat zela. Jolastokia da ikasleek atsedean hartzeko espazioa, eta beraz, kontuan izan behar da atsedeanaldian erabiltzen den espazioa jarduerak baldintzatzen duela, eta jarduera generoak baldintzatzen duela. Futbol-zelaiak espazio osoa hartzen badu, mutilek hartuko dute, oro har, espazioaren zatirik handiena, eta gainerakoak ertzetan eta libre geratzen diren zatietan geratuko dira. Planteamendu horretatik abiatuta, jolastokian esku hartzeko proiektua jarri zen martxan.

Lehenik eta behin, ikasleek jolastokiaren erabilerei buruzko azterketa egin zuten, eta lortutako emaitzak aztertu ondoren, honako hau ondorioztatu zuten: espazio komunak erabiltzeko eskubidea ikasle guztientzat berdina bada, ezin da egoteko modu bakarra egon.

Horregatik, jolastokia berrantolatu zen: futbol-zelaiak espazioaren heren bat hartu zuen, beste heren bat saskibaloikantxa bihurtu zen, eta gainerako herena egoteko eta elkartzeko gune bilakatu zen. Mahaiak eta eserlekuak dituzten egiturak ere eraiki ziren, espazioa modu desberdinetan erabili ahal izateko.

Bigarren kasua pandemiaren ondorioz sortutako egoera baten harira etorri zen: komunak ikasturteen arabera banatzeko beharra eta ikasleak ez nahasteko ezintasuna. Testuinguru horretan, ikastetxeak *Komun-komunak* eraiki zituen, genero-bereizketarik gabeko komunak. Ate handi batetik sartu ondoren, espazioa zenbait komun pribatutan banatzen da, ikasle guztiek erabili ahal izateko.

Aurrekontuarekin lotutako arrazoiengatik, eredua ezin izan da ikastetxeko komun guztietara zabaltzea, baina ikastetxeak proposamen bat egin zion Eusko Jaurlaritzari: aurrerantzean berritze-lanen bat egin behar bada, eredu horren arabera egitea. Proiektu hauek irakasleen konbentzimendutik abiatu dira: **«Genero-ikuspegia ez da herriko plazan bakarrik aldarrikatu behar; azpiegiturretatik ere landu behar da, azpiegiturek gure harremanak eta jarrerak nola baldintzatzen dituzten aztertuz».**

Ikasgaia eta proiektuak martxan jarri zirenetik, ikasle askok —bereziki neskek— parte hartu ikasgaiari eta haren baitan garatutako jardueretan. Irakasleen eta ikasleen indarra eta konpromisoa oso handiak izan arren, erresistentziak ugariak dira oraindik. Zenbait urtetan nesken eta mutilen parte-hartzea parekatua izan bada ere, gehienetan neskek osatu dute taldea. Oraindik erresistentzia handia dago mutilen aldetik, batez ere lehen mailatik hirugarrenera bitartean, eta horrek jarduerak garatu ahal izatea oztopatzen du.

Irakasleen arabera, erresistentzia horiek nerabezaroaren berezko jarrerak dira, eta ikasleek euren buruak kokatzeko eta jarrerak defendatzeko beharra sentitzen dute; baina, aldi berean, joera antifeministak erresistentzia horiek elikatzen ari dira, eta azkar zabaltzen ari dira gazteen artean. Defentsarako jarrera, lehen zuten leku pribilegiatua galdu izanaren sentsazioa eta espazioak uzteko prozesua erresistentzia kolektibo horren parte dira.

Erresistentzia horiek kudeatzea da irakasleen erronka nagusietako bat, bereziki irakasle emakumeena, indarkeria eta presio handiagoa jasotzen baitute ikasleengandik. Erronka horri lanaren prekarietatea gehitu behar zaio, 2024an Eusko Jaurlaritzak finantzaketa kendu baitzuen, eta liberatutako ordu gutxi batzuen eta lanorduz kanpoko inplikazio handiaren bidez mantentzen da dedikazioa.

«Ez digu inork erakutsi nola egin; hanka sartuz ikasi dugu». Irakasleek hasitako lana gero eta konplexuagoa bihurtu da, eta etengabe gainditu behar dituzte oztopoak. Irakasleek azaldu dutenez, auzi handia eman da hezkidetzatik pedagogia feministara.

«Kontua ez da aukera-berdintasuna soilik; oztopoak gainditzea, boterearekin lotutako auziak zalantzan jartzea, egiturazko indarkeriaz hitz egitea, Mendebaldeko gizon zuriaren erreferentzia aldatzea baizik».

Aldaketa horietarako egin behar den lana ez da ikasgelara eta ikastetxera mugatzen. Mugatuta eta modu prekarioan lan egitera behartuta daude, eta, ikastetxe gisa, curriculumean aldaketak txertatzea eskatzen dute, ikasgaietatik bertatik lan egin ahal izateko.

Horretarako, aparteko lan kolektiboa eta indibiduala egin behar da, eta eduki guztiak berrikusi, zalantzan jarri eta aztertu behar dira, genero-ikuspegitik eraldatzeko. 2014an bidaiari ekin ziotenetik, ilusioa eta neke fisikoa zein emozionala bidelagun izan dituzte une oro. Ikasturte amaierak indar kolektiboari buruzko galderak pizten ditu: ikastetxea bera eta ikastetxeko kideak aldatu ditu, baina, aldi berean, mantentzeak higadura handia dakar. Hala ere, balantzea beti da positiboa, eta ibilbideak aurrera jarraitzen du. «Haiengan konfiantza izaten jarraitu behar dugu. Haiengan konfiantza galtzen badugu, akabo, honek ez du zentzurik».

Urteak igaro ahala, herriaren goialdean kokatuta dagoen institutu honek egiturak, espazio publikoa, ikasgelako dinamikak eta hezkuntza arautua eraldatzeko motor batek bezala funtzionatu du. Jolastokia memoriarako gune bihurtu da, espazio publikoa beste modu batean erabiltzeko borrokaren memoria gordetzen duelako, rol patriarkaletatik urrun, inor molestatu gabe lasai egon ahal izateko jolastokiko ertzetara joan beharrik izan gabe.

Jolastokian, ikasgelatan, besteentzat erreferente bihurtu diren ikasleengan eta denboran zehar sostengatutako ahalegin kolektiboan datza gaur egungo «memoriaren» esentziak. Katean dabilen motor bat da, gero etorriko direnek aurkituko duten institutua gaurkoa ez bezalakoa izan dadin, hau da, 2014tik hona izan den bezalakoa izan dadin.



“ «Existitzen jarraitzea» ere
bada memoria egitea. ”

“ Erresistentzia-ariketa
hori presente egotea da
askotan, espazio fisiko
bat okupatzea eta
erreferente bihurtzea. ”

”

Hutsune bat betetzea, espazio bat okupatzea, erreferente bihurtzea: Debako eta Donostiako elkarte feministak eta antirrazistak

Azpeitia eta Mutrikuko esperientziek erakutsi digute erresistentzia feministetatik abiatuta memoriari eta aktibismo feministari loturiko ariketa kolektiboak jarri direla martxan Gipuzkoako zenbait udalerritan. Ikerketa honek izan duen ibilbide fisikoan, elkarteetatik eta gizarte-mugimenduetatik egiten den memoria feministari buruzko hausnarketa ere egin dugu. Horretarako, **Debako talde feministako** eta **Alesan** elkarte (Euskal Herriko Unibertsitateko arrazakeriaren aurkako elkarte) emakumeengana hurbildu eta haiekin egon gara.

2024ko martxoaren 8an, aurrez antolatu eta herriko borroka feministaren aitzindari izan ziren emakumeak ezagutu eta aitortzeko beharra sentitu zuten Debako talde feministako kideek (Gipuzkoako udalerriko emakumeek osaturiko taldea). Bultzada horretan agerian geratu zen memoria feminista egiteko nahia, baina baita «lotsa» ere, aurreko erreferenteak ez ezagutzeagatik.

Lotsa horrek —«Aztarnak» proiektuaren jatorriaz ere hitz egin ziguten— badu osagai mobilizatzailerik bat. Erreferente feministak ahanzturan utzi izan dira, ez dira subjektu historiko gisa hartu eta hutsuneak eta isiluneak geratu dira genealogia feministetan, hori guztia asmo batekin, eta indarkeria eta kultura patriarkalaren parte dira. Feministoi lotsa eragiten digu ezjakintasun horrek eta, Debako talde feministatik adierazi zuten bezala, «jende asko ez da konturatzen gaur egun ditugun eskubideak borroka gogor baten ondorio direla; inork ez digu ezer oparitu». **Lotsa horrek, ezjakintasunak eta ahaztu izanak memoria egiteko beharrarekin lotzen gaitu.**

Horrela, taldeak erabaki zuen atzera begiratzea, izenak eta gertaerak bilatzea, eta genealogia horiek berreraikitzen saiatzea, gabeziek mugimenduen indarra ahultzen baitute. 2025ean oraindik aktibo jarraitzen duen kolektibo horrek 2017 inguruan ekin zion bere bideari, orain aitortu eta ikusgai egin nahi duten erreferente horietako bati esker, besteak beste. Mila Idiakez militante feminista historikoak zerbait sinplea baina erabakigarria egin zuen taldea martxan jartzeko: «elkar aurkeztu gintuen, elkartu egin gintuen». Topaketa horietan, elkar ezagutzen ari zirela, gaur egun martxan jarraitzen duen taldea eratu zen.

Parte-hartzaileetako batzuek diotenez, hasieran bi helburu nagusi ezarri zituzten: lehenik eta behin, elkar ezagutzea, taldea sortzea eta esperientziak partekatzea; eta, bigarrenik, galdera hauei erantzutea: «Zer egin nahi genuen? Zer behar ikusten genituen herrian? Zer zen garrantzitsua guretzat?».

Hortik aurrera, hainbat faktorek baldintzatu dute taldearen ibilbidea eta militantzia bera. Lehen lerroan jarri zuten udalerraren errealitatea: 5.000 biztanleko herri kontserbadorea. Testuinguru horretan, erabaki guztiak konplexuak dira eta jendaurreko esposizioa ere handia da. Horren adibide dugu zezenketen aurka agertzeko erabakia, edo, erasoan kasuan, seinalatze publikoak egitea. «Etiketatu eta estigmatizatu egiten zaituzte». Horrelakoek lana zaildu eta taldea nekatzen dute. Udalarekin harremanak izan edo ez izateari buruzko zalantzak ere etengabeak dira. Udalarekin harremanetan jartzeak batzuetan parte hartu nahi ez duzun prozesuetan murgiltzera eramaten zaitu; edo zuk eskatzen duzunean erantzuten ez duen erakunde batekin harreman adeitsua mantendu behar izatea gerta liteke. Adierazi dutenez, horrelako hausnarketak (parte hartu edo ez, etab.) etengabeak izan dira taldean, espazio horiei uko egiteak «gure begirada garrantzitsuak diren eremuetatik kanpo uztea» baitakar.



Etorkizunari begira, belaunaldi gazteen jarrera erreakzionarioek kezka sortzen dute, Mutrikuko institutu publikoko irakasleek adierazi zuten bezala. «Zazpi urte daramatzat taldeko kide gazteena izaten». Neska gazteak ez dira talde feministara hurbiltzen, inguruneak erreakzionarioagoak direlako eta epaitzearen arrisku handiagoa dagoelako. Horregatik, emakume askok talde feministetan ez parte hartzea erabakitzen dute, are gehiago Deba bezalako herri txikietan.

Urteak igaro ahala, eta begirada taldearen etorkizunean jarrita, emakumeengan eragin handia du kanpotik jasotzen den pertzepzioak, jomugan egoteak eta etengabe zalantzan jartzeak. Hala eta guztiz ere, erreferente bihurtu dira beste emakume askorentzat, eta horrek pisu handiagoa du. Taldea, bere lanari eta erasoan aurrean emandako erantzunari esker, erreferentzia-gune bihurtu da.

Duela urtebete baino gehiago abiarazitako memoria-ariketari esker, iraganera begiratu eta oroitzapenak bildu eta gogoratu ahal izan dituzte, eta, batez ere, memoria egitearen garrantzia aktibatu dute. Izen batzuk galdu egin direla eta inoiz berreskuratuko ez direla jakin arren, memoria-ariketa hori egitea erreparazio-ekintza bat da, baita etorkizunera begiratzeko modu bat ere: genealogia batek sostengatzen duen mugimendu baten parte direla ulertzeko.

Borroka feministan lagunduta sentitzea.

Elkarrizketen amaieran, memoriak ez du soilik iraganeko lekua hartzen, baita etorkizuneko ere. Memoria egitea ez da aurreko erreferenteak berreskuratzea bakarrik; gaur egun taldea bera memoria egiten ari dela konturatzea ere bada. **Nola uste duzue egiten ari zaretela memoria?** «Memoria egiten ari gara, hemen gaudelako, ezta? Erreferentzia-leku bat gara».


«Existitzen jarraitzea» ere bada memoria egitea.

Ikasle-mugimenduaren kasuan, 2021 inguruan, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Donostiako campusean, ikasle talde bat antolatzen eta elkartzen hasi zen, arrazakeriaren aurkako ekimen eta erantzun instituzionalen gabeziaren aurrean, hutsune hori betetzeko asmoz. «Unibertsitatean inpunitate handia dago». Elkartzeko, ikaskide arrazializatuen artean hitz egiteko, kezkak eta bizipenak partekatzeko beharra sortzen da batzuetan. «Unibertsitatea anitza izango dela pentsatzen duzu, baina ez da horrela, inola ere ez».

Bizipen horien aurrean, Alesan elkartek eginkizun garrantzitsua izan du, batez ere unibertsitatetik kanpo, parte hartu duten emakumeek azaldu dutenez. «Guztiok gauza bera sentitzen genuen, eta horrek elkartu gintuen».

Erresistentzia-ariketak espazio arrotz eta arrazista batean egotea dakar, espazio hori barrutik zalantzan jartzea, eta, batzuetan, arrazismoari aurre egitea —eta ez erakundeen edo «kontrako» kolektiboen arrazismoari bakarrik, baita antirrazistak direla dioten pertsona zurienari ere—. Azaldu zigutenez, pertsona zuri askok antirrazistatzat jotzen dute euren burua eta jardura antirrazistetan parte hartzen dute, baina, askotan, migrazioaren inguruan duten ikuspegia beren errealitatera mugatzen da. Hau da, migratzaileak kalean bizi diren eta duela gutxi iritsi diren pertsonak bakarrik direla pentsatzen dute. Hori oso arriskutsua da, asko mugatzen baititu migratutako pertsonen errealitateak eta esperientziak, baita autokritikarako gaitasuna ere, jarrera arrazistak leporatzen zaizkienean. Aurreiritziak ezabatzearen ariketa denona da, baina konplazentziak, bazterketak eta arrazakeriak prozesu horiek oztokatzen dituzte batzuetan.

Horiek dira, hain zuzen, lan feminista eta antirrazista egiteak, memoria egiteak eta aurrera jarraitzeak dakartzan zailtasunetako batzuk. Baina, Debako kideek bezala, **erresistentzia-ariketa hori presente egotea da askotan, espazio fisiko bat okupatzea eta erreferente bihurtzea.**



“

Emakume langileen eta enplegatuen historia berreskuratzea zen xedea, etxe barruan nahiz kanpoan lan egin zutenena; ez bakarrik ekoizpenean aritu zirenena, guztiek osatzen baitute Eibarko historia industrialak.



Genealogia feministak eraikitze oroimen kolektiboa: Aztarnak proiektua Eibarren eta beste udalerri batzuetan.

«Aztarnak» proiektua —izen bat edo beste hartu zuen («Huellas de las mujeres y del feminismo» edo «Mapa de las huellas de las Mujeres») lurraldearen arabera— Zaida Fernándezen esperientzia pertsonal eta militantean oinarritu zen, baina, batez ere, emakumeen eta feminismoaren tokiko memoria modu kolektiboan berreraikitze beharraren kontzientzia.

Aztarnak kontzeptua eragin zuen bultzada hori tresnak sortzearen beharretik elikatu zen: pedagogia feminista egiteko, emakumeen testigantzak biltzeko, identitatea eraikitze eta genealogia feministak osatzeko. Proiektuak Ondarroan eta Basaurin ekin zion bideari, garai hartako berdintasun-teknikarien bultzadari esker, eta ia 10 urtez luzatu zen. Geroago, aztarnak Ermua, Errearteria eta Eibarrera ere iritsi ziren.

Espazio horiek guztiek udalerri bakoitzean garatutako memoria historiko feministaren berreraikitzeko lana jasotzen dute, Zaida Fernándezen laguntza eta ikerketa-lanaren gidaritzapean. Udalerri guztietan berdina zen proiektuaren eragilea, baina proiektu bakoitzean udalerriko emakumeek erabaki eta mugatu zituzten zein aztarna berreskuratu nahi zituzten eta nola. Ikerketa bakoitza elkarriketa indibidualetan, dokumentu-azterketetan, oroimen kolektiboko saioetan eta beste hainbat topagunetan jasotako informazioan, kontakizunetan, bizitza-istorioetan oinarritu da. Ikerketek itxura bat edo bestea hartu zuten udalerri bakoitzean, eta gero ekintza eta jarduera publikoen bidez partekatu zen.

Baina, **zer dira aztarnak?** Aztarnek lurralde bakoitzeko emakumeentzat eta mugimendu feministentzat esanguratsuak izan diren edo diren espazio, garai edo fenomeno historikoei egiten diete erreferentzia.

Leku bakoitzean identifikatutako aztarnak emakume parte-hartzaileentzat garrantzitsua izan zen espazio-garai bati lotuta zeuden beti. Helburua zen memoria horiek berreskuratzea eta historia modu kolektiboan berreraikitzea, emakumeak subjektu historikotzat hartuta eta genealogia feministak eraikitzeak aukera emanez. Ikerketa lehenengo egindako udalerrietan, hau da, Basaurin eta Ondarroan, **espazio fisikoak** zehaztu zuen ikuspegia: memoria kartografiatik berreskuratzea erabaki zen.

Horretarako, emakumeak egon ziren eta borrokan aritu ziren lekuak —genero-rol patriarkalen baitan egin bazuten ere— marraztu eta mapan kokatu ziren. Hori oso garrantzitsua zen, emakumeek okupatutako espazioa mapan ezartzeaz gain, agerian geratu baitzen emakumeak zein leku zehatzetara baztertu zituzten eta zein lekutatik uko egin zieten.

Ondarroan eta Basaurin proiektua Udalaren esparru instituzionaletik garatu zen; Ermuan, berriz, Ermuko Emakume Asanbladan sortu eta martxan jarri zen. Asanblearen izaera eta esanahi politiko horrek eragin zuzena izan zuen jasotako «aztarnetan», borroka politikoen memoria bihurtu baitziren, zaintzen banaketari edo sexu- eta ugalketa-eskubideei buruzko lelo historikoen bidez.

Azkenik, Eibarrek eta Errenteriak beste bide bat hartu zuten. Udalerri horietan, emakume parte-hartzaileek erabaki zuten emakumeek industrializazioan utzitako aztarnak berreskuratu nahi zituztela.



Izan ere, industrializazio-prozesua erabakigarria izan zen udalerrri horietan, eta hor jarri nahi zuten begirada: ez soilik emakumeen ekarpenetan; eraldaketa-prozesuek emakumeengan izan zituzten ondorioak ere aztertu nahi izan zituzten.

Eibarren, Emakumeen Mahaiak bultzatuta jarri zen martxan proiektua, eta emakume parte-hartzaileek berehala erabaki zuten **industrializazio - prozesua** zela ikertu eta berreskuratu nahi zuten espazioa-garaia. Eibarren prozesua gidatu zuen printzipioa argia izan zen hasiera-hasieratik: ez zen soilik lantegi eta tailerretan gertatutakoa aztertzea, baizik eta industrializazio-prozesuan emakumeek egin zituzten gainerako jarduera guztiak ikusgai egitea.

Emakume langileen eta enplegatuen historia berreskuratzea zen xedea, etxe barruan nahiz kanpoan lan egin zutenena; ez bakarrik ekoizpenean aritu zirenena, guztiek osatzen baitute Eibarko historia industrial.

Iraganera egindako bidaia horretan, Eibarko emakumeek «oroimen-saio kolektiboak» egin zituzten: taldean partekatu, kontrastatu eta testuinguruan jarri zituzten kontakizunak, biografiak, esperientzia pertsonalak, lanekoak, taldekoak eta belaunaldien artekoak. Lan horri esker, emakumeen bizipenak osatzen zituzten iraganeko gertaerak balioetsi ahal izan ziren, eta beste ikuspegi batzuetatik aztertu ahal izan ziren. 5

aioek aurrera egin ahala, berreskuratze kolektiboko lanak arrasto sakona utzi zuen parte hartu zuten emakumeengan. Saioen hasieran galdera hau egiten zen: **nola lagundu duzue zuek Eibarko ekonomian?** Hasieran zaila zen erantzunak aurkitzea, gizonek industrian egindako «lanari» erreferentzia egiten baitzioten beti.

Baina, saioz saio, gero eta gehiago parte hartu zuten kontakizunetan, oroitzapenetan eta emakumeak egondako espazio-garaian xehetasunetan; eta emakumeen irudia subjektu historiko bihurtzen joan zen. Saio horiek, testigantzak partekatzeko eta biltzeko metodologia izateaz gain, teoria feministaren pedagogia- eta ikaskuntza-gune bihurtu ziren. Teoriatik abiatuta, esperientziak berriz izendatu eta historia ikuspegi ez-patriarkaletik berreraiki ahal izan zen. Bizipenen eta esperientzien hartu-emanak memoria plural bat eraikitzeak aukera eman zuen, eta parte hartu zuten emakumeak konturatu ziren eurak ere subjektu historikoak izan zirela. Hausnarketak aurrera joan ahala aldatu egin zen emakumeek Eibarko industrializazio-prozesuari egindako ekarpenari buruzko pertzepzioa.

Aldaketa horrexek eman zion izena ikerketaren emaitza gisa argitaratutako liburuari: «Sin las mujeres, Eibar no sería lo que es». Liburuan jasotako istorioetako batek argi eta garbi adierazten du narrazio historikoaren ahalduz- eta eraldaketa-prozesua; saio kolektiboetan partekatutako bizipenetako bat da. Bertan, Arrateko errepidea eraikitzeak prozesua nola bizi izan zen kontatzen da. Emakumeek kontatu zuten, gizonak lanera joaten ziren eta obran pasatzen zuten egun osoa, hilabete luzez, errepidea amaitu arte. Beraiek ere egunero joaten omen ziren errepidera gizonei «rantxoak» eramatera, hau da, lanaldiari aurre egiteko behar zuten janaria. Saioen ondoren, emakumeek kontatzen zuten zaintza horiek ere errepidea eraikitzea ahalbidetu zutela: **«Emakumeek ere egin zuten Arrateko errepidea».**

Bizitzari eusteko egiten zuten lan guztia — emakumeek lan erreproduktibo amaigabeak egiten zituzten, askotan, lan produktiboaz gain — aitortzea funtsezkoa izan zen erreskate-prozesuan. **Istorio horiek guztiak komunitate baten oroitzapen eta ahanztura kolektiboen parte dira.**

Eibarren kasuan, lantegietako eta tailerretako lana eta ekintzailtza bizirik zeuden emakumeen memorian, eta eibartarren harrotasun berezia elikatzen zuten. Emakumeek lan gogorra eta aurrera jarraitzeko ahalegina goraipatzen zituzten behin eta berriz, baina, eurek ziotenez, bizirauteko eta oparotasun ekonomikoa lortzeko bideak bilatu zituzten belaunaldien harrotasunaren parte da.

Narrazio kolektibo horretan, Eibarko industrializazio-prozesuak baditu berezitasun batzuk Errenteriakoarekin edo Basaurikoarekin alderatuta. Eibarren tailerrak txikiagoak ziren (langileak jabe bihur zitezkeen) eta kooperatibak zeuden, Alfa, adibidez. Errenterian eta Basaurin, berriz, enpresak handiak ziren, askotan atzeritarrenak; horrek beste batzuentzat lan egitearen sentimendua indartu zuen, eta antolaketa eta borroka sindikal sendoa piztu zituen.

Elkarrekin onartutako eta partekatutako narrazio kolektibo horretan ez zen jasotzen emakumeek industrializazio-prozesuan zehar egindako lanaren arrastorik, eta hori izan zen, hain zuen, proiektuaren ekarpen nagusietako bat. «Industriak asko eman zigun eta asko kendu zigun». **Esaldi hori zabaltzea, esanahia ematea, taldean gogoratzea eta historia begirada feministatik berreraikitzea funtsezkoa izan zen Eibarko historia osatzeko, gainerako lurraldeetan bezala, komunitatearen historia gisa kontatzen baita, guztiz osatu gabe egon arren.**

Eibarren bizitako prozesuak —eta Basaurin, Ondarroan, Errenterian eta Ermuan bizitakoak— memoria kolektiboa memoria historiko bihurtzea zuen helburu. Memoria erreskatatu nahi zen, baina ez nostalgiatik, baizik eta patriarkatuak emakumeen belaunaldi osoei ezarri dien ahanztura bortitzaren erreparaziotik. Horregatik, erreskateak belaunaldien artekoa izan behar zuen.

Prozesua amaitzean, belaunaldi desberdinetako emakumeak elkartzeko eta hausnarketa egiteko ahalegina izan da ekarpenik esanguratsuenetako bat, emakumeek elkar ezagutzeko, partekatzeko eta narrazioak kontatzeko aukera izan baitute.

Zaida Fernándezek berak azaldu bezala, proiektua emakumeok bizi dugun babesgabetasun ikasia seinalatzetik abiatu zen. «Desagerrarazi egin gaituzte». Desagerpen hori ez da izan ausazkoa, aurrez erabakia baizik; eta geure burua aurkitu eta aitortzeko genealogia feministarik ez izateak iraunarazi egiten du ahanztura.

Etorkizunerako begirada horretan zegoen proiektuaren beraren jatorria ere. Proiektuan parte hartu zuten emakume asko adinekoak ziren, eta beldur ziren, beren istorioak, bizipenak, ekarpenak eta egindako lana beraiekin batera desagertuko ote ziren. Zaidak abian jarri zuen eta gero emakume askok bat egin zuten matrize horretan ideia bat zegoen: **«feminismoa etorkizuneko mugimendua da, baina badugu iragan bat; zer egingo dugu harekin? Berreskuratu, elkarrekin berreraiki eta kontatu».**

Proiektu hau, emakume askok gogoratzeko, elkarri kontatzeko eta historia berreraikitzeke egindako lana, agentziaz egindako memoria-ariketa bat da: memoria egitea, gero etorriko direnentzat.

Ondorioak

Egin dugun eta hemen marraztu dugun ibilbide fisikoak ikerketa bat egitea ahalbidetu digu, Gipuzkoako emakumeen eta kolektiboen borrokei eta erresistentziei buruz, betiere espazio fisikoa memoriaren leku gisa ulertuta. Prozesua osatu duen bidaian zehar, bisitatu ditugun herri eta hirien artean, emakume guztiek partekatutako esperientziak eta istorioak elkar lotu dira.

Lehenik eta behin, istorioak ahoz transmititu dira. Emakumeek kontatu eta deskribatu zizkiguten martxan jarritako prozesuak, oztopoak, beldurrak, neke fisikoa, eta abar. Haien kontakizunetan oinarrituta osatu da hemen aurkeztutako kartografia. Bisitatu ditugun ia leku guztietan, memoria egitea izan da lanaren helburua, beste emakume eta erakunde batzuek aurrez egindako ibilbideak ulertzea eta balioan jartzea, eta borrokak bultzatu eta haiei jarraipena ematea.

Elkarriketa guztietan, bisitatzen genituen lekuek —erresistentzien euskarri izateaz gain, haien protagonistak ere baziren askotan— memoriaz hitz egiten ziguten. Espazio fisikoa, lekuak, herriak, plazak eta kaleak testu hauetan kontatutako historiaren parte izan dira. Kolektiboen erresistentzia eta borroka espaziotik, espazioan eta espazio publikorako egin dira.

Elkarriketa ia guztietan, emakumeek «lotsa» sentitzen zuten hasieran, haien aurretik egondako emakumeekiko zor baten sentimendua. Ez jakiteagatik, ahazteagatik edo izendatzen ez jakiteagatik sentitutako erruduntasuna. Hala ere, lotsa hori elementu mobilizatzaile bihurtu da; izan ere, oso errotuta eta normalizatuta dauden isiltasun horiek berriro aztertzeke, entzuteke, biltzeke eta kontatzeko nahia piztu du.

Gipuzkoako emakumeen borroketatik eta proiektuetatik barrena egindako ibilbide hau, ikerketa-saiakera oro bezala, partziala da, eta hainbat esperientzia utzi behar izan ditugu kanpoan, proiektuaren mugak direla eta. Hala ere, amaierara iritsi gara, eta espero dugu istorio hauek guztiek aldarrikatzen duten ibilbidea eta elkarrizketak baliagarriak izatea elkar ezagutzen, hitz egiten eta memoria egiten jarraitzeko.

Esker onak

Edozein ikerketatan bezala, emaitzak eta helmuga beti dira lan kolektiboaren emaitza. Horregatik, bereziki eskerrak eman nahi dizkiegu hemen jasotako kolektibo eta proiektuetako emakumeei, gurekin elkartzeko prest egon direlako eta beren esperientziak eta ikaskuntzak gurekin partekatu dituztelako, zintzotasunez eta beren lanaren irmotasunetik. Eskerrik asko zuen denbora baliotsua eskaintzeagatik.

♀ TU ROMPES
TU TECHO DE CRISTAL
Y LO LIMPIAMOS LAS
MIGRAS EN SITUACION
ADMINISTRATIVA
IRREGULAR

#REGULARIZACION YA!
#REGULARIZACION YA!
#REGULARIZACION YA!





